eta horiek gauzatu beharko lituzketen kontratu-zatiak adierazita.

Enpresa kontratistak itundutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratista eta hornitzaileei, dagokion faktura egin eta, gehienez ere, 30 egun naturaleko epean. Udalak egiaztatu ahal izango du kontratista adjudikaziodunak zorrotz bete dituela ustiapenean parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin beharreko ordainketak.

Enpresa azpikontratistak kontratista nagusiarekiko baino ez ditu izango betebeharrak, eta kontratista nagusiak hartuko du bere gain Udalaren aurrean kontratua gauzatzearen ardura osoa.

Kontratistak ezin izango du inola ere azpikontrataziorik hitzartu sailkapenak etenda dituzten eta kontratatzeko ezgaituak dauden pertsonekin.

las partes del contrato a realizar por las mismas.

La empresa contratista se obligará a abonar a las subcontratistas y suministradoras el pago del precio pactados en el plazo máximo de 30 días naturales desde la emisión de la factura correspondiente. El Ayuntamiento podrá comprobar el estricto cumplimiento de los pagos que la contratista adjudicataria ha de hacer a todas las subcontratistas o suministradoras que participen en la explotación.

Las empresas subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la contratista principal que asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento.

En ningún caso podrá concertarse por la contratista la subcontratación con personas incursas en suspensión de clasificaciones e inhabilitadas para contratar.

13. KLAUSULA
ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13.1. Kontratuaren inguruko ez-betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, sailkapen honen arabera:

1.- Oso larriak:

a) Administrazio-ebazpen irmoa, kontratuak irauten duen bitartean bi ez-betetze larrirengatik eta balizko luzapenengatik.

b) Taberna-jatetxe zerbitzurik ez eskaintzea edo ezarritako ordutegia ez betetzea, justifikaziorik gabe eta Udalaren baimenik gabe hilabete berean bost egunez (jarraituak edo ez) edo hiru hilabeteko epean zazpi egunez.

c) Kontratistak nahita edo zabarkeriaz jokatzearen ondorioz kontratuaren objektu diren ondasunak kaltetzea.

d) Emakidaren bezeroei eraso egitea edo horiekiko errespetu faltak edukitzea.

CLÁUSULA 13
INFRACCIONES Y SANCIONES

13.1. Los incumplimientos del contrato se clasificarán en muy graves, graves y leves de acuerdo con la siguiente clasificación:

1.- Muy graves:

a) Resolución administrativa firme por dos incumplimientos graves durante toda la duración del contrato y sus posibles prórrogas

b) No ofrecer servicio de bar-restaurante o no respetar el horario establecido, sin justificación ni permiso del Ayuntamiento, durante cinco días (continuados o no) dentro de un mismo mes o siete días en un periodo de tres meses.

c) Dañar los bienes objeto del contrato existiendo intencionalidad o negligencia por parte del contratista.

d) Agredir a las personas clientes de la concesión o faltarles al respeto gravemente.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

2.- Larriak:

a) Inongo justifikaziorik gabe aldatzea klausulen agiri honetan zehaztutako prestazioak edo/eta adjudikaziodunak eskaintzan jasotakoak.

b) Instalazioei baimendu gabeko erabilerak ematea.

c) Baimendu gabeko obrak edo aldaketak egitea.

d) Eraikina edo/eta taberna-jatetxea osoki edo partzialki lagatzea, azpierrentatzea edo eskualdatzea, modalitatea edo titulua edozein izanda ere.

e) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein arau-hauste

f) Eraikinaren erabilera aldatzeari edo hobetzeari buruzko udal-aginduak ez betetzea, administrazio jarduleak aginduok beharrezkotzat jotzen dituenean.

g) Baldintzen agiri honetan prestazioa ematen hasteko zehaztua dagoen epea ez betetzea.

h) Langileekiko lan- edo gizarte-betebeharrak ez betetzea.

i) Emakida hutsik uztea edo ezarritako ordutegia ez betetzea, justifikaziorik gabe eta Udalaren baimenik gabe hilabete berean bi egunez (jarraituak zein ez) edo hiru hilabeteko epean lau egunez.

j) Kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileek baldintza teknikoen agirietan eskatzen den hizkuntza-gaitasuna ez izatea

k) Urtebeteko epean lau arau-hauste arin egitea.

2.- Graves:

a) Modificar sin justificación alguna las prestaciones fijadas en este pliego de cláusulas y/o las ofrecidas por la oferta adjudicataria.

b) Dedicar las instalaciones a usos no autorizados.

c) La realización de obras o modificaciones no autorizadas.

d) Ceder, subarrendar o traspasar, todo o en parte, el edificio y/o el bar-restaurante, bajo cualquier modalidad o título.

e) Cualquier otra infracción que suponga incumplimiento de las obligaciones contractuales esenciales.

f) Incumplimiento de las órdenes municipales sobre modificaciones o mejoras en el uso del edificio, cuando así se consideren necesarias por parte de la Administración actuante.

g) Incumplimiento del plazo establecido en el presente pliego para el inicio de la prestación.

h) Incumplimiento de las obligaciones laborales o sociales en relación con sus trabajadores/as.

i) Dejar la concesión vacante o no respetar el horario establecido, sin justificación ni permiso del Ayuntamiento, durante dos días (continuados o no) dentro de un mismo mes o cuatro días en un periodo de tres meses.

j) No cumplir el personal encargado de la ejecución del contrato con la capacitación lingüística exigida en los Pliegos de Condiciones Técnicas.

k) Incurrir en cuatro incumplimientos leves en el período de un año.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

3.- Arin:

Ez-betetze arintzat joko dira agiri honetan eta gainerako arau aplikagarrietan xedatuak dauden gainerako betebeharrak ez betetzea, betiere, larritzat edo oso larritzat jotzen ez badira.

13. 2.- Udalak honela zehatuko ditu arau-hausteak:

a) Arau-hauste arinak:

- Ohartarazpena
- edo/eta hileko kanonaren % 50-erainoko zenbatekoa isun gisa

b) Arau-hauste larriak:

- Hileko kanonaren % 51etik % 150erainoko zenbatekoa isun gisa.

c) Arau-hauste oso larriak:

- Hileko kanonaren % 151etik % 300erainoko zenbatekoa isun gisa.
- Taberna-jatetxearen ustiapenaren emakida suntsiaraztea, funtsezko kontratu-betebeharrak urratzen badira.

13.3 Alkate-udalburuak ezarriko ditu zehapenak, kontraesaneko espedientea izapidetu ondoren.

14. KLAUSULA

KONTRATUA SUNTSIARAZTEA / EMAKIDA ERRESKATATZEA

14.1 Zehapenei buruzko atalean aipatutakoez gain, kontratua suntsiarazteko kausa izan daitezke:

a) Adjudikaziodunak lizitazio-fasean aurkeztutako edozein datu edo dokumentazio faltsutzea, Udalak edozein unetan egiaztatuta.

3.- Leves:

Se considerarán incumplimientos leves todos los demás incumplimientos de las obligaciones fijadas en el presente pliego y en la demás normativa aplicable no calificados como graves o muy graves.

13. 2.- Las infracciones serán sancionadas por el Ayuntamiento con arreglo a lo siguiente:

a) Las infracciones leves serán sancionadas con:

- Apercibimiento
- y/o multa hasta el importe del 50% del canon mensual

b) Las infracciones graves serán sancionadas con:

- Multa entre el 51% y el 150% del canon mensual.

c) Las infracciones muy graves serán sancionadas con:

- Multa entre el 151% y el 300% del canon mensual.
- Resolución de la concesión con explotación del bar-restaurante, si se vulnerasen obligaciones contractuales esenciales.

13.3 Las sanciones serán impuestas por la Alcaldía-Presidencia, previo expediente contradictorio

CLÁUSULA 14

RESOLUCIÓN DEL CONTRATO/ RESCATE DE LA CONCESIÓN

14.1 Además de la citada en el apartado relativo a las sanciones, serán causas de resolución del contrato:

a) La falsedad comprobada en cualquier momento por el Ayuntamiento de cualquier dato o documentación aportada por la adjudicataria en la fase de licitación.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

b) Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 211. eta 313. artikuluetan adierazitakoak.

14.2 Udalak gerora erreskatatu ahal izango du emakida, epea amaitu baino lehenago, interes publikoko inguruabarrek hala justifikatzen badute. Kasu horretan, behin betiko bermea itzuliko da, baita emakidadunari eragindako kalte-galeren ordaina ere, halakorik balego. Kalte eta galera horien zenbatekoa berme osoa amaitzeko geratzen ziren urte guztietan ordaindu beharko litzatekeen kanona izango da. Emakida-erreskate hori aplikatuko da, baldin eta emakidadunari egozteko moduko suntsiarazpen-arrazoirik ez badago.

15. KLAUSULA

KONTRATUA AMAITZEA. – BERMEA ITZULTZEA

15.1 Ustiapenerako emakida-epea edo horren luzapenak amaitzean, pertsona adjudikazioduna Laudioko Udalari itzuli beharko dio emakidaren objektu den ondasun higiezina, inolako kargarik gabe. Itzulketa horrek barne hartuko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean modu finko eta banaezinean egin diren obra, eraikuntza eta abarrekin batera, PPTan beharrezko inbertsio gisa aurreikusitako makineria, tresneria edo ekipamendua, salbu eta botere adjudikatzaileak ezarria duenean ondasunok ez direla itzulgarriak.

Horretarako, bi alderdiek sinatutako akta egingo da, berariazko adostasuna eta itzulitako guztiaren zerrenda jasoz, dagozkion argazki-irudiekin batera. Akta hori zerbitzua amaitu eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean izenpetu beharko da, eta horren berri emango zaio Tokiko Gobernu Batzarrari.

b) Las señaladas en los artículos 211 y 313 de la Ley 9/2017, del 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

14.2 El Ayuntamiento podrá proceder al rescate de la concesión de manera sobrevenida con anterioridad al plazo de su vencimiento si así lo justificaren circunstancias sobrevenidas de interés público. En este supuesto procederá la devolución de la garantía definitiva, así como el resarcimiento de los daños y perjuicios ocasionados al concesionario, si los hubiera, y que se cifrarán en el importe del canon a satisfacer por el total de los años que restaren para su total terminación. Este rescate de la concesión será aplicable siempre que no exista una causa de resolución imputable al concesionario.

CLÁUSULA 15

FINALIZACIÓN DEL CONTRATO. - DEVOLUCIÓN GARANTÍA

15.1 Al finalizar el plazo de concesión para la explotación o cualquiera de sus prórrogas, la persona adjudicataria deberá devolver al Ayuntamiento de Laudio/Llodio el bien inmueble objeto de la concesión libre de cargas y gravámenes. Esta devolución incluirá, junto con las obras, construcciones etc. que de forma fija e inseparable hubiera llevado a cabo durante la vigencia del contrato y maquinaria, menaje o equipamiento que hubiese sido prevista como inversión necesaria en el PPT, salvo que se haya establecido su no reversibilidad por el poder adjudicador.

A tal efecto, se levantará Acta suscrita por ambas partes incluyendo conformidad expresa y relación de todo lo devuelto acompañada por las imágenes fotográficas correspondientes Esta acta será firmada en el plazo máximo de quince días naturales siguientes a la finalización de la prestación del servicio, y de la cual se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Betebehar hori betetzen dela bermatzeko, Udalak ikuskapen-bisita bat egingo du higiezinera emakidaren amaiera-data baino sei hilabete lehenago, eta, hala badagokio, ondasuna erabiltzeko moduan itzul dakion beharrezkoak diren konponketen berri emango du. Kasu horretan, obrak gauzatzeko epea emango zaio adjudikaziodunari, eta ohartaraziko zaio ezen, agindutako obrak gauzatzen ez badira, Udalak adjudikaziodunaren kontura egikarituko dituela, eta behin betiko bermea konfiskatzeko nahiz kontratua aldez aurretik suntsiarazteko aukera ere izango duela.

15.2 Aurreko atalean aipatzen den harrera-akta sinatu ondoren, Udalak behin betiko bermea itzuliko dio adjudikaziodunari, gehienez ere, akta izenpetu osteko hilabeteko epean.

15.3 Emakidaren epea amaitutakoan emakidaren adjudikaziodunak ez baditu libre, hutsik eta Udalaren esku utzi erabileraren objektu diren ondasun guztiak, dagokion ebazpena eman ahal izango du Udalak, ondoren, emakidaduna botatzeko.

16. KLAUSULA KONTRATUAREN ERREGULAZIO-ARAUAK

16.1 Emakida prestatu, adjudikatu, horren ondoreak zehaztu eta suntsiarazteko egintzei dagokienez, baldintza-agiriek arautuko dute emakida hori, eta, agiriek aurreikusi gabeko alderdietan, lehentasunez, honako arau hauek:

- 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa (HAOL), eta lege hori garatzeko Erregelamendua, abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren bidez onestia. Azken xedapenetako bigarrenaren arabera, oinarrizko legeak zein diren eta osagarri gisa zein aplikatu behar diren zaindu beharko da.

Para garantizar el cumplimiento de esta obligación, seis meses antes de la fecha de finalización, el Ayuntamiento realizará una visita de inspección al inmueble e informará sobre las reparaciones necesarias, en su caso, que sean precisas para su devolución en condiciones de uso. En tal supuesto, se otorgará plazo a la persona adjudicataria, con advertencia de que, en el supuesto de no llevarse a cabo, serán ejecutadas por el Ayuntamiento a su costa, sin perjuicio de la posible incautación de la garantía definitiva así como resolución anticipada del contrato

15.2 Suscrita el acta de recepción a que se hace referencia en el apartado anterior, el Ayuntamiento procederá a la devolución de la garantía definitiva en el plazo máximo de un mes desde la fecha de firma.

15.3 En el supuesto de que, finalizado el plazo de la concesión, la adjudicataria de la concesión no procederá a dejar libres y vacuos, a disposición del Ayuntamiento la totalidad de los bienes objeto de utilización, el Ayuntamiento podrá proceder a la adopción de la resolución correspondiente y posterior lanzamiento del/a concesionario/a.

CLÁUSULA 16

NORMAS REGULADORAS DEL CONTRATO

16.1 En lo que se refiere a los actos de preparación, adjudicación, efectos y extinción de la concesión, esta concesión se regirá por sus Pliegos y, en lo no previsto por los mismos, con carácter preferente, por la siguiente normativa:

-Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP) y su reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 1373/2009, de 28 de agosto. Deberá observarse, según su disposición final segunda qué preceptos son legislación básica y cuales son de aplicación supletoria.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

- 1372/1986 Errege Dekretua, uztailaren 12koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onestekoa (TEOE).

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, eta 1098/2001 Errege Dekretua (APKLEO).

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onestekoa.

-Real Decreto 1372/1986, de 12 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las entidades locales (RBEL).

-Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y el RD 1098/2001 (RGLCAP)

-Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

-Real Decreto Legislativo 781/1986, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.

Laudio, 2025eko iraila

Llodio, septiembre de 2025

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

I. ERANSKINA ("A" GUTUN-AZALA)

AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZA-GUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOAREN EMAKIDA

.... interesdunak (NAN zk. .....), bere izenean eta/edo ..... enpresaren ordezkaritzan (jakinarazpenetarako helbidea: ..... udalerrian, ... kalea, ... zk., enpresaren IFZ:..... , enpresaren telefono zk. ....., komunikazio eta jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: .....)

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA. Ezagutu egin duela Laudioko Udalak Kontratatzailearen Profilean *AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZA-GUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOKO EMAKIDA* kontratatzeko argitaratutako iragarkia

BIGARRENA. Baldintza teknikoen agiria eta administrazio-klausula partikularren agiria aztertu dituela eta ezagutzen dituela.

HIRUGARRENA.Halaber, honako hau ziurtatzen du:

- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko egokia duela lizitazio honen bidez formalizatu nahi den kontratuaren adjudikazioduna izateko. Kaudimena egiaztatzeko modu gisa eskatzen den asegurua kontratatua ez badago, deklarazioa aurkezteak inplikatu egingo du asegurua kontratatzeko konpromisoa hartuko dela dagokion adjudikazio-proposamenean jasotzen

ANEXO I (SOBRE "A")

CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS

D./Da. ....., con DNI núm. ……....., en nombre propio y/o en representación de la empresa ....., con domicilio a efecto de notificaciones en…….....calle ..... núm. ....., NIF..... de la empresa, tfno. de la empresa ....., y con el siguiente correo electrónico (a efectos, en su caso, de comunicaciones y notificaciones) .....

DECLARA

PRIMERO. Que conoce el anuncio publicado por el Ayuntamiento de Laudio/Llodio en su Perfil del Contratante para la contratación de la ***CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS***

SEGUNDO. Que ha examinado y conoce el Pliego de Prescripciones Técnicas y el de Cláusulas Administrativas Particulares.

TERCERO. Que, asimismo, asegura lo siguiente:

- Disponer de la adecuada solvencia económica, financiera y técnica, para ser el/la adjudicatario/a del contrato que se somete a la presente licitación. En el caso de no disponer del seguro exigido como una de las formas de acreditación de la solvencia, la presentación declaración supone el compromiso de su subscripción en el plazo que se otorgue para la presentación de la documentación correspondiente a la oferta que se incluya en la correspondiente propuesta de

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

den eskaintzari dagokion dokumentazioa aurkezteko epearen barruan.

o Kontratuaren objektu den jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak dituela, edo, hala badagokio, baimen horiek kontratua gauzatzen hasi aurretik edukitzeko konpromisoa hartu duela.

o Ez duela kontratatzeko inolako debekurik

o Baimena ematen diola Laudioko Udalari Gizarte Segurantzan dauden datuak kontsultatzeko, legediak ezarritako legezko betebeharra, hau da, ordainketak egunean izatea betetzen dela egiaztatze aldera. Baimena ematen dio, halaber, kontratazio hau izapidetzeko eta, hala badagokio, adjudikazioa egiteko ezinbestekoak diren datuak kontsultatzeko, edozein administrazio-erakundetan egonda ere.

o Langileak kontratatuz gero, hitzarmen kolektibo hau aplikatuko dela: ……..... .....

Laudion, 2025eko ……aren ….(ea)n / En Llodio, a..... de ..... de 2025.

Izenpea

adjudicación.

o Disponer de las autorizaciones de todo tipo que son precisas para ejercer la actividad objeto del contrato o, en su caso, compromiso de contar con dichas autorizaciones con anterioridad al comienzo de la ejecución del contrato.

o No estar incurso en prohibición de contratar alguna.

o Autoriza al Ayuntamiento de Laudio/Llodio a la consulta de los datos obrantes en la Seguridad Social a efectos de acreditar el cumplimiento de la obligación legal impuesta por la legislación de hallarse al corriente de los pagos, así como los datos obrantes en cualquier instancia administrativa que sean imprescindibles para proceder a la tramitación y, en su caso, adjudicación de la presente contratación

o Que, en el supuesto de proceder a la contratación de personal, el Convenio Colectivo aplicable es el siguiente: ……..... .....

Laudio/Llodio, ... de ..... de 2025.

Firmado

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

II. ERANSKINA ("C" GUTUN-AZALA)

AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZA-GUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOAREN EMAKIDA

.... interesdunak (NAN zk. ....., ……..…… udalerrian jaulkia data honetan:……..……), bere izenean eta/edo ..... enpresaren ordezkaritzan (jakinarazpenetarako helbidea: ..... udalerrian, ... kalea, ... zk., enpresaren IFZ:..... , enpresaren telefono zk.: .....…….)

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA. - Ezagutu egin duela Laudioko Udalak Kontratatzailearen Profilean ***AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZA-GUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOKO EMAKIDA*** kontratatzeko argitaratutako iragarkia.

BIGARRENA. - Baldintza teknikoen agiria eta administrazio-klausula partikularren agiria aztertu dituela eta ezagutzen dituela. Kontratazio honi aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-testuak ere ezagutzen dituela.

HIRUGARRENA. - Konpromisoa hartzen duela ustiapen hori baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera egiteko, eta, gutxienez, honako produktu hauek eskainiko dituela, adierazitako prezioetan:

ANEXO II (SOBRE "C")

CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS

D..... ....., provisto del DNI número..... expedido en ……..... con fecha ..... en nombre propio y/o en representación de la empresa…… ……..…, con domicilio a efecto de notificaciones en ..... calle ..... núm. ....., NIF..... de la empresa, tfno.....,

DECLARA

PRIMERO. - Que conoce el anuncio publicado por el Ayuntamiento de Laudio/Llodio en su Perfil del Contratante para la contratación de la ***CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS.***

SEGUNDO. - Que ha examinado y conoce el Pliego de Prescripciones Técnicas y el de Cláusulas Administrativas Particulares. Que igualmente conoce los textos legales y reglamentarios de aplicación a la presente contratación.

TERCERO. - Que se compromete a llevar a cabo citada explotación en las condiciones establecidas en los Pliegos, y a ofertar como mínimo los siguientes productos con los siguientes precios:

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

EGUNEKO MENUAK (10 puntu) MENÚS DEL DÍA (10 puntos)	**Puntuak** Puntos	**ESKAINITAKO PREZIO MAXIMOA (BEZ barne)** PRECIO MÁXIMO OFERTADO (IVA incl.)
Eguneko menua (astelehenetik ostiralera) Menú del día (lunes a viernes)	5	
Eguneko menu erdia (astelehenetik ostiralera) Medio menú del día (lunes a viernes)	5	
PINTXOAK (1,5 puntu) PINTXOS (1,5 puntos)	**Puntuak** Puntos	**ESKAINITAKO PREZIO MAXIMOA (BEZ barne)** PRECIO MÁXIMO OFERTADO (IVA incl.)
Patatazko arrautzopil pintxoa (tipularekin ala tipularik gabe) Pintxo de tortilla de patata (con o sin cebolla)	1,5	
KAFEAK ETA INFUSIOAK (7,5 puntu) CAFÉS E INFUSIONES (7,5 puntos)	**Puntuak** Puntos	**ESKAINITAKO PREZIO MAXIMOA (BEZ barne)** PRECIO MÁXIMO OFERTADO (IVA incl.)
Kafe hutsa Café solo	1,5	
Kafe ebakia Café cortado	1,5	
Kafesnea Café con leche	1,5	
Cola Cao edo Nesquik edo antzekoak Cola cao o Nesquik o similar	1,5	
Infusioak Infusiones	1,5	
EDARIAK (6 puntu) BEBIDAS (6 puntos)	**Puntuak** Puntos	**ESKAINITAKO PREZIO MAXIMOA (BEZ barne)** PRECIO MÁXIMO OFERTADO (IVA incl.)
Ardo ondua (kopa) Copa de vino crianza	1,5	
Freskagarri botilatxoak (cola, fanta/kas eta antzekoak) Refrescos botellín (cola, fanta/kas y similares)	1,5	
Zuritoa (edo litro bosteneko botillatxoa) Zurito (o botellín, quinto)	1,5	
Garagardo kaña (edo litro hereneko botila) Caña de cerveza (o botella, tercio)	1,5	

Laudion, 2025eko …….aren ….(ea)n

Laudio, ... de ..... de 2025.

Izenpea

Firmado

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

III. ERANSKINA

AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZA-GUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOAREN EMAKIDARAKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK

A.- BALIOZKO JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK

1.- JARDUERAREN MEMORIA (75 puntu gehienez)

Aurkeztutako proposamenaren kalitatea honako azpi-irizpide hauen arabera baloratuko da:

- Ikuspegi edo kontzeptu gastronomikoa: udalerriaren errealitatearekin bat etortzea, inguruneko eskaintzatik desberdintzea, pertsonak erakartzeko gaitasuna. (15 puntu)

- Menua eta produktuen eskaintza: Eguneko eta kartako menuetako eskaintzaren aniztasuna eta kalitatea. Aukera beganoak eta zeliakoentzako aukerak eskaintzea.

- 0 kilometroko ikuspegia (hurbileko produktuak, tokiko produktuekin eta ekoizleekin lan egiteko proposamena, etab.) (15 puntu)

- Ordutegiak zabaltzeko proposamena[1], afariak eta/edo jarduera osagarriak egiteko aukera (plaza dinamizatzea, tailerrak/beste jarduera batzuk). (15 puntu)

ANEXO III

CRITERIOS DE VALORACIÓN PARA LA *CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS*

A.- CRITERIOS SUJETOS A JUICIO DE VALOR

1.- MEMORIA DE LA ACTIVIDAD (máx. 75 puntos)

Se valorará la calidad de la propuesta presentada en base a los siguientes subcriterios:

- Visión o concepto gastronómico: encaje con la realidad del municipio, diferenciación respecto a la oferta del entorno, capacidad de atracción de personas. (15 puntos)

- Menú y oferta de productos: Variedad y calidad de la oferta de menú del día y carta. Existencia de opciones veganas y para personas celíacas. (15 puntos)

- Enfoque kilómetro 0 (productos de cercanía, propuesta de trabajo con productos y productores/as locales, etc.) (15 puntos)

- Propuesta de aumento de horarios[2], posibilidad de cenas y/o actividades complementarias (dinamización de la plaza, talleres/otras actividades). (15 puntos)

[1] Gehienez ere, 2. taldeko lizentzia eta itxiera-ordutegi orokorra eduki ahalko du ostalaritza-guneak, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzekoan xedatutakoari jarraikiz.

[2] El espacio hostelero podrá tener licencia y horario general de cierre, como máximo, de Grupo 2 según Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

- Negozioa kudeatzeko gaitasuna eta bikaintasuna (giza taldearen antolakuntza, iraunkortasun-plana, hondakinen kudeaketa...). (15 puntu)

Memoriak ezingo du gainditu 50 orrialdeko luzera, 11 neurriko letraz (zenbaketa horretatik kanpo geratuko dira azala nahiz aurkibidea, baldin badaude). Atal honetan 37,5 puntu baino gutxiago lortuz gero, lizitaziotik kanpo geratuko da hautagaia.

B.- IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

2.- OHIKO PRODUKTUEN PREZIOAK (25 puntu gehienez)

Emakidadunak jarraian ageri den taulan jasotako produktuak eskaini beharko ditu, gutxienez.

- Capacidad y excelencia en la gestión del negocio (Organización del equipo humano, plan de sostenibilidad, gestión de residuos...). (15 puntos)

La memoria no podrá superar las 50 páginas de extensión a tamaño 11 (excluyendo de este cómputo la portada e índice, si los hubiere). La obtención de menos de 37,5 puntos en este apartado supondrá la exclusión de la licitación.

B.- CRITERIOS AUTOMÁTICOS

2.- PRECIOS DE PRODUCTOS HABITUALES (max. 25 ptos)

La concesionaria ofertará, como mínimo, los productos establecidos en la tabla siguiente.

EGUNEKO MENUAK (10 puntu) MENÚS DEL DÍA (10 puntos)	**Puntuak** Puntos
Eguneko menua (astelehenetik ostiralera) Menú del día (lunes a viernes)	5
Eguneko menu erdia (astelehenetik ostiralera) Medio menú del día (lunes a viernes)	5
PINTXOAK (1,5 puntu) PINTXOS (1,5 puntos)	**Puntuak** Puntos
Patatazko arrautzopil pintxoa (tipularekin ala tipularik gabe) Pintxo de tortilla de patata (con o sin cebolla)	1,5
KAFEAK ETA INFUSIOAK (7,5 puntu) CAFÉS E INFUSIONES (7,5 puntos)	**Puntuak** Puntos
Kafe hutsa Café solo	1,5
Kafe ebakia Café cortado	1,5
Kafesnea Café con leche	1,5
Cola Cao edo Nesquik edo antzekoak Cola cao o Nesquik o similar	1,5
Infusioak Infusiones	1,5
EDARIAK (6 puntu) BEBIDAS (6 puntos)	**Puntuak** Puntos
Ardo ondua (kopa) Copa de vino crianza	1,5

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Freskagarri botilatxoak (cola, fanta/kas eta antzekoak) Refrescos botellín (cola, fanta/kas y similares)	1,5
Zuritoa (edo litro bosteneko botillatxoa) Zurito (o botellín, quinto)	1,5
Garagardo kaña (edo litro hereneko botila) Caña de cerveza (o botella, tercio)	1,5

Horietako bakoitzean eskainitako prezioaren lehiakortasunaren arabera dagokion zutabean ezarritako puntuak emango dira, honako formula honetan oinarrituta:

$$Po = Pm * \frac{Oe}{of}$$

Non eta:

Po= lizitatzaileak lortutako puntuazioa

Of = lizitatzaileak egindako eskaintza

Pm = kasuan kasuko produktuan lor daitekeen gehieneko puntuazioa

Oe = kasuan kasuko produktuaren gaineko eskaintza merkeena

Produktuen zerrenda minimoa da, ez mugatzailea, eta, beraz, emakidadunak komenigarritzat jotzen duen beste edozein produktu eskaini ahal izango du. Preziorik ageri ez bada, 0 puntu emango dira kasuan kasuko produktuari dagokionez.

Se otorgarán los puntos establecidos en la columna correspondiente según la competitividad del precio ofertado en cada uno de ellos, en base a la siguiente fórmula:

$$Po = Pm * \frac{Oe}{of}$$

Donde:

Po= Puntuación obtenida por el licitador

Of = Oferta realizada por el licitador

Pm = Puntuación máxima posible en el producto correspondiente

Oe = Oferta más económica en el producto correspondiente

La lista de productos es mínima pero no limitativa, pudiendo la concesionaria ofertar cualesquiera otros que considere convenientes. En caso de no figurar precio, se otorgarán 0 puntos en el producto correspondiente.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

IV. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

AZOKA PLAZA BERRIKO OSTALARITZAGUNEA USTIATZEKO ERABILERA PRIBATIBOAREN EMAKIDA

1.- Erabaki honen zati gisa, ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNA eskura ditzakeen datuen tratamenduaren arduradun bihurtuko da burutzen den unean bertan. Hortaz, konpromisoa hartu du izaera pertsonaleko datuak tratatzeari buruzko arauetan xedatutakoa une oro aplikatzeko.

2.- ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAK konpromisoa hartu du eskuratzen duen informazioa bakar-bakarrik kontratuaren objektuaren helburua betetze aldera erabiltzeko.

3.- Kontratuaren gauzatzea edo prestazio puntual guztiak amaitutakoan, ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAK datu pertsonalak suntsituko ditu eta, hala badagokio, baita datu horiek dauzkaten euskarriak ere. Betebehar horretatik kanpo geratzen da kontratua bete dela egiaztatzeko beharrezko informazioa.

4.- ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNEKO langileek isilpean gorde beharko dituzte kontratua gauzatzearen ondorioz eskuratu dituzten datu pertsonalak, baita kontratua amaitu ondoren ere.

ANEXO IV

TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

CONCESIÓN DE USO PRIVATIVO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL ESPACIO HOSTELERO DE LA NUEVA PLAZA DE ABASTOS

1.- La ENTIDAD ADJUDICATARIA, como parte del presente acuerdo, se convierte desde su perfección en encargada del tratamiento de los datos a los que pudiera acceder. Así, se compromete en todo momento, a observar lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.

2.- La ENTIDAD ADJUDICATARIA se compromete a tratar la información a la que acceda sólo para la finalidad objeto de la prestación del contrato.

3.- Finalizada la ejecución del contrato o cada una de las prestaciones puntuales, la ENTIDAD ADJUDICATARIA destruirá los datos de carácter personal y, en su caso, los soportes donde consten. Esta obligación se entiende salvo la información necesaria para acreditar el cumplimiento del contrato

4.- El personal de LA ENTIDAD ADJUDICATARIA tendrá la obligación de mantener el deber de secreto respecto a los datos de carácter personal a los que haya tenido acceso en virtud de la ejecución del contrato, incluso después de que finalice.